



Ormaiztegui Udala

2018ko irailaren 17ko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE OHIKOA

ORMAIZTEGIIn, 2018ko irailaren 17an, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, JON ENRIQUE GALARZA Udalbatzarreko Presidentearen lehendakaritzapean, BATZARRE OHIKOA lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Agustin GILABERT MOLIST Jna.
- Olaia IZAGIRRE CRUZ And.
- Rosario BERASATEGI AIZPEOLEA And.
- Izaskun UNZURRUNZAGA PILDAIN And.
- Beñat HACH EMBAREK IRIZAR Jna.
- Aitor IURRITA ZABALA

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, baina bere ezagertzea desenkusatur:

- Jose Maria IURRITA ARREGI Jna.
- Josu Mirena MAIORA ORIA Jna.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Inor ez.

Segidan Lehendakariordeak hasiera eman dio bilerari, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

LEHENENGO PUNTUA:

UDALBATZARREKO AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Idazkariak aktaren inguruan ea baten batek zerbait adierazi nahi duen galdetu du.

Udalkideetatik inork ez du ezer adierazi.

...//...
O-18/06-01



Ormaiztegui Udala

...II...

Beraz, eta besterik gabe, udalbatzarrari aurkeztu zaion akta onartutzat eman da, akta hau jarraian datorrena delarik:

- 2018.07.23ko Bilkura ohikoa (O-18-05).

BIGARREN PUNTUA: **ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

- R-18/224 – R-18/265

Beñat Hach Embarek zinegotziak galdetu du ea ebazpenen artean garrantzi berezia daukanik edo azpimarratzekorik dagoen.

Idazkariak erantzun dio ebazpenak beste osoko bilkura batzuetakoak baino gutxiago direla, batez ere, oporraldia izan delako tartean. Gehienak ohikoak direla eta, baten bat aipatzekotan, honako hauek izango lirakeela bere ustez: Osasun Etxeko obraren Segurtasun Plana onartzeko eta Segurtasun koordinatzailea izendatzeko ebazpenak eta argikuntza publikoko kontratuaren lizitazioan aholkularitza emateko aditua kontratatzeke ebazpena.

Ez da bestelako galderarik edo ekarpenik izan eta aurrera egin da gai zerrendako hurrengo gaiarekin.

HIRUGARREN PUNTUA:

04/2018 Kreditu Aldaketaren behin-behineko onespina, hala badagokio.

Alkateak kreditu aldaketaren espedientea aurkeztu du, lehendik ere Ogasun Batzordean landutakoa, eta zinegotzien eskura jarri da.

Gastu berrien artean, eskolan apurtu den galdara aldatzeko, berria erosi beharra eta salakalderasen egokitze lanak egin beharra aipatu du alkateak eta, hori dela eta, lizitazioa ireki dela gaur bertan azaldu du, eskaintzak jasotzeko. Horrez gain, Osasun Etxeko ekipamendua erosi beharrak eta lokala klimatizatzeke sistema sartzeko obra kontratuaren aldatetarik dakartzan gastu berriak aipatu ditu.

Idazkariak azaldu du kreditu aldaketa espediente bakarrean sartu dela, prozedura errazte aldera, bertan kontzeptu desberdinak sartzen diren arren. Espedientearen eranskinean Osasun Etxea jarri beharrean Kultur Etxea jarrita dagoela aipatu du eta akatsa zuzenduta ekarriko duela taula hurrengo bilerarako hitzeman du.

Finantzaketa altxortegi gerakinarekin eta jasotako dirulaguntzarekin egingo dela azaldu du.

Ondoren eztabaida ireki da baina ez da oharririk edo besteririk izan. Bozketari ekin zaio eta ahobatez onartu da.

...II...

O-18/06-02



LAUGARREN PUNTUA:

Udal langileen lansarien igoseraren onespena, hala badagokio.

Alkateak azaldu du 2018rako % 2,05-eko igosera ezarri dela legez udal langileen lansarrietan eta Udalak aurrekontuan % 3 daukala jasota kontzeptu horretarako, hortaz, aurreikuspenen barruan geratzen dela.

Zinegotziek ez dute kontrakorik adierazi. Bozketa egin da eta ahobatez onartu da.

BOSTGARREN PUNTUA:

Dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren behin-behineko onespena, hala badagokio.

Ordenantza proposamena korporazioko kideen eskura jarri da. Alkateak hitza hartu eta azaldu du dirulaguntzak zein motatakoak izango diren eta nola arautuko diren, aurretik Ogasun Batzordean landutakoaren haritik.

Idazkariak aipatu du Foru Araua dagoela dirulaguntzak arautzen dituen eta udal ordenantzek Foru Araua bete behar dutela. Ordenantza onartuta dagoenean, urtero prestatu beharko dela Dirulaguntzen Plan Estrategikoa; itunpeko dirulaguntzak emateko, hitzarmenak sinatu beharko direla elkarrekin; eta elkarrekin edo partikularrek jasotzen dituzten laguntzak ezarritako helburuak betetzeko erabili direla egiaztatu beharko dutela.

Zinegotziek ez dute galderarik edo ekarpenik egin. Ordenantza proposamena bozkatu da eta ahobatez onartu da.

SEIGARREN PUNTUA:

Erreguak eta galderak

Ez da galderarik ez erregurik izan.

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:25 ordu direnean, bilkura amaitutzat ematen da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2018ko irailaren 18an.
Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begoña Antxustegi Bengoetxea